

Euskal industriaren negozio-zifra % 5,2 jaitsi zen 2012. urtean


Euskal manufaktura-industriaren salmenta guztien % 40,8 atzerrian egin zen; hau da, 2008an baino hamabi portzentajezko puntu gehiago

Euskal AEko industria-sektorearen negozio-zifraren zenbateko garbia 55.661 milioi eurora iritsi zen 2012an; hau da, % 5,2ko jaitsiera nominala, Eustaten datuen arabera.

Manufaktura-industria, *Erauzketa-industria, Ur-hornidura eta saneamendua eta Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* sektoreak kanpo uzten dituen, 47.870,7 milioi euroko negozio-zifra izan zuen 2012an; hau da, 2011n baino % 6,1 gutxiago.

Salmenten helburuari dagokionez, atzerriko merkatuaren hazkundera azpimarratu behar da, eta barneko nahiz Espainiako merkatuek behera egin dutela, krisiaren aurreko egoerari erreparatuta. Hala, salmenta guztiak kontuan hartuta, euskal manufaktura-industriaren % 40,8 atzerriko salmentei dagokie, 2008an % 29 zegokien bitartean. Atzerriko salmenten % 24,5 Europar Batasunean saldu ziren eta % 16,3, berriz, gainerako herrialdeetan. Gainerakoan, salmenten % 30,8 Euskal AEn saldu ziren, 2008an baino zazpi puntu gutxiago. Espainian % 28,4koak izan ziren salmentak, lau urte lehenago % 33koak ziren bitartean.

Euskal AEko manufaktura-industriaren salmenten helburu geografikoa. 2012. %



Iturria: Eustat. Industria estatistika

Euskal industriako landunak 203.174 ziren 2012an; hau da, aurreko urtean baino % 4,8 gutxiago (10.231 enplegu galtzea). Langile-gastuak ere jaitsi egin ziren, % 2,9, hain juxtu. Egindako inbertsioak aldakuntza negatiboa izan zuen, % 9,5koa, hain zuzen.

Industriako aldagai nagusiak. Euskal AE. Urteko prezioak (mila €)

	2012	Δ %
Landunak NU	203.174	-4,8
Negozio zifraren zenbatekoa guztira	55.661.105	-5,2
Hornimenduak	34.007.897	-6,7
Kanpo-zerbitzuak	7.837.177	-2,5
Lagileria-gastuak	8.647.818	-2,9
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	13.983.941	-5,4
Egindako inbertsioak	1.991.536	-9,5

Iturria: Eustat. Industria estatistika


Sektoreka, honakoak izan ziren industria-sektorean garrantzi handieneko adarrak 2012an: *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 25,4), *Koketegiak eta petrolio-findegia* (% 12,2), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 11,9) eta *Garraiorako materiala* (% 10,3). Bestalde, *Metalurgia eta metalezko produktuak*, *Makineria eta ekipoa*, *Kautxua eta plastikoak* adarrekin izan zituzten landun gehien 2012an, % 33,9, % 10,2 eta % 9,9, hurrenez hurren.

Sektorearen bilakaerari dagokionez, hiru adarren salmentak hazi dira: *Erauzketa-industriak* (% 6,3), *Produktu informatikoak eta elektronikoak* (% 2,3) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 1). Kontrara, jaitsiera handieneko adarrak hauek izan ziren: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* (-% 14,8), *Industria kimikoa* (-% 14,3) eta *Kautxua eta plastikoak* (-% 11,1).

Enplegu-galerak sektore guztiei eragin die, baina nabarmenenak *Kautxua eta plastikoak* (-% 8,3) eta *Egurra, papera eta arte grafikoak* (-% 7,2) sektoreetan gertatu dira. *Produktu informatikoak eta elektronikoak* (% 2,5) eta *Botikagintza* (% 0,7) sektoreek baizik ez dituzte izan aldakuntza positiboak.

Lurraldeka, hiru lurraldeetan jaitsi da negozio-zifra. Jaitsiera handiena Bizkaian gertatu da, % 7koa izan denez. Arabakoa izan da bigarren jaitsierarik handiena, % 5,9koa, eta Gipuzkoan jaitsi da gutxien, % 2,1, hain zuzen. Enpleguak ere bilakaera negatiboa izan du hiru lurraldeetan. % 5,2 jaitsi da Bizkaian, % 4,7 Araban eta % 4,3 Gipuzkoan.

Euskal AEko industriaren negozio-zifraren sektore-bilakaera. 2011-2012. %



Iturria: Eustat. Industria estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
Euskal AEko industria-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago
Euskal AEko estatistika-estatistikari buruzko datu-bankua